

Concurso de vídeos - Bideo lehiaketa

● RECACCIONA

Parte hartzeko garaia da!

18-30 urte años

Irailak 30 de septiembre

1.000 €, 300 €, 100 € *

*Zure parte-hartze proiektuetarako / Para tus proyectos de participación

egk.org



Euskadiko Gazteriaren Konsteilua
Consejo de la Juventud de Euskadi

Antolatzailea
Organiza:

Euskadiko
Gazteriaren
Konsteilua



Consejo de
la Juventud
de Euskadi

Diru laguntzailea
Con la ayuda económica de:



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social





● RECacciona

Parte hartzeko garaia da!

Concurso de vídeos

1.- Antolatzailea.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (egoitza soziala: Autonomía, 44, behe, 48010 Bilbao; Identifikazio Fiscal Kodea, Q9850001J), zozketa bat antolatu du, [“RECacciona. Parte hartzeko garaia da!”](#) bideo lehiaketako bere bideorik gustukoaren alde bozkatzen duten guztien artean.

2.- Facebook-ekiko lotura eza.

Facebook-ek ez du, inolaz ere, zozketa hau babesten, laguntzen ez eta kudeatzen ere, eta ez du zozketarekin zerikusirik. Zozketan parte hartzen duena Facebook-ez deslotzen da, eta badaki bere datuak Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari (eta ez Facebook-i) lagatzen dizkiola. Ematen duen informazio pertsonala zozketan saritua izan dela komunikatzeko erabiliko da, hala izanez gero.

3.- Zozketaren helburua eta funtzionamendua.

Parte hartzen duen pertsonak bere bideorik gustukoaren aldeko bozka eman ahal izango du, bideoaren behealdean dagoen botoian klik eginez. Ondoren, bere e-maila sartu behar izango du, EGK-k berarekin kontaktatu ahal izateko, saria lortzekotan. Era berean, bizi den herria edo hiria zehaztuko du parte-hartzen duen pertsonak.

4.- Iraupena eta esparrua.

Edozein pertsona edo elkarte bozkatu ahal izango du, muga geografikorik gabe. Bozkatzeko epea urriaren 2an irekiko da, 09.30etan, eta urriaren 15ean itxiko da, 14.00etan.

5.-Parte hartzeko baldintzak.

18 urtetik gorako pertsona fisiko guztiek parte hartu ahal izango dute zozketan, Facebook-en erabiltzaile profil erreal bat baldin badute. Era berean, Facebooken profil edo orrialde erreala duten elkarte eta gizarte mugimenduek ere bere bozka eman ahal izango dute, eta zozketan parte hartu.

Ezin izango dute parte hartu: Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko langileek, RECacciona lehiaketako epaimahaiko kideek eta iruzurrezko profilek.



6.- Irabazlearen hautaketa, ordezkariak, jakinarazpena eta saria ematea.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak zozketa bat egingo du, RECacciona lehiaketako epaimahaiaren aurrean. Bere bideo favoritoa bozkatu duten pertsona eta elkarte guztiek parte hartuko dute zozketan, eta produktu ekologikoetan edo bidezko merkataritzan gastatzeko 100 €-ko zozketan parte hartuko dute.

RECacciona lehiaketaren epaimahaia Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko Batzorde Iraunkorraren hiru kidek osatzen dute, eta EGK-ko bi langilek.

EGK-k ez badu irabazlearekin kontaktatzen lortzen (24 orduko epean), ala sariari uko egin balio, beste irabazle bat aukeratuko da zozketa bidez, lehenak saria aldarrikatzeko eskubidea galduko duelarik.

Era berean, zozketan saritua den pertsona/elkartearen [EGK-k Facebook-en duen orrialdean](#) jakinaraziko da, baita www.egk.org webgunean eta e-mailez ere, behin bozkatzeko epea amaituta eta hurrengo 24 orduetan.

Sarituak Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan jaso behar izango du saria, EGK-k finkatutako tokian eta orduan.

7.- Sariak.

Saria 100 €-koa da, nekazaritza ekologikoko produktuetan ala bidezko merkataritzan gastatzeko. Sarituak Araba, Bizkaia ala Gipuzkoako saltoki bat edo bi aukeratuko ditu saria gastatzeko, eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (aukeratutako saltokiekin adostuta), guztira 100 €-ko balioa izango duen balea (bat edo bi) emango dizkio.

8.- Erreserbak eta mugak.

Iruzurra egon dela frogatuko balitz (adibidez, profil faltsuak edo oinarri hauen kontra doan beste edozein jarduera), pertsona/elkarte hori deskalifikatua geratuko litzateke, eta saria galduko luke, irabazi izan balu.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak ez du ardurarik izango, saritua den pertsonak/elkarteak bere datuak gaizki utzi baditu eta, ondorioz, ezin bazaio saria eman.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak manipulazioa edo zozketaren faltsifikazioa izan daitekeen edozein ekintza egiten duen pertsona/elkartearen aurka justiziara jotzeko eskubidea dauka.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak ez du bere gain ardurarik hartzen, zozketan parte hartzeko beharrezkoak diren zerbitzuak gaizki funtzionatzen badute ala erabileraz



kanpo geratzen badira, eta parte hartzeko erabili behar diren orrialde eta aplikazioek hutsegiteak baldin badituzte.

Bidezko arrazoi bat ala ezinbesteko zergatiak tartean, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak zozketaren funtzionamendu hobe bat lortzeko aldaketak egiteko eskubidea gordetzen du.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak zozketa honen epeak atzeratu ala luzatzeko eskubidea gordetzen du, bai eta oinarri hauek interpretatzeko eskubidea ere.

Era berean, EGK-k ez du ardurarik hartzen, saria disfrutatzearen ondorioz sortu daitezkeen kalteen gainean.

9.- Datuen babesa.

Parte hartzaileek ematen dituzten datuak Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak baino ez ditu erabiliko, modu konfidentzian eta zozketa honekin zerkusia duten jakinarazpenetarako bakarrik.

10.- Oinarrien onarpena.

Zozketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea suposatzen du. Norbaitek oinarriekin guztiz ala neurri batean bat ez datozela adierazten badu, zozketatik kanpo geratuko da eta, ondorioz, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak parte-hartzaile horrekin izan litzakeen betebeharrak desagertuko dira.

